

SOFTWARE ASKERAKO MIGRAZIO FASEAK

SOFTWARE ASKEAREN INPLEMENTAZIORAKO 1. FASEA: HAUSNARKETA

Esan bezala, softwaregintzara dedikatzen diren enpresek euren negozio politikak aldatzen hasiak dira. Horixe da behintzat Microsoftek azken hilabeteotan eman dituen urratsetatik ondoriozta daitekeena. Antza denez, Microsoftek orain arte onartu duen "pirateoarekin" amaitzeko asmoa dauka. Horrela une honetan sare publikoko eta kristau eskolekin sinatu berri dituen kontratuen arabera, hauek Microsoft Office aplikazioaren lizentziak ordaintzeko konpromisoa hartzen dute.

Ikastolok etorkizunean zer egingo dugun oraindik erabat zehaztu gabe badago ere (datorren apirilaren 17an izango dugun bileran honen inguruko informazio sakonagoa emango zaigula pentsatzen dugu) dagoeneko urtebete egitera goaz Microsoftekin lehen akordio batera iritsi ginenetik. Akordio honen arabera ikastola bakoitzak lizentzien zati bat ordaintzeko erabakia hartu zen. Zentzuzkoa da pentsatzea etorkizunak ildo beretik egingo duela eta poliki poliki, lizentzietan ordaintzen joan beharko dugun diru kantitatea handitzen joango da.

Begibistakoa da honek orain arte izan ez dugun arazo ekonomiko berri bat suposatuko digula. Dena den, ikastolan erabiltzen dugun softwarearen motak eragin edo inplikazio ekonomikoak baino handiagoak dituela esan beharra dago. Gehiago esango genuke; ziurrenik azken urteotan IKTen arloan hartu behar izan dugun erabaki garrantzitsuenaren aurrean gaude une honetan.

Egia da, azken urteotan, ikastola barruan izan ditugun IKT baliabideak hazten eta hedatzen joan direla, honek gure langileen etengabeko egokitze eta prestatze esfortzu bat eskatu duelarik. Egokitze prozesu hauek mailakatuak izaten ahalegindu gara; horrela oinarritzko tresnak gehiago bati zuzenduak egon diren bezala, beste batzuk irakasle jakin batzuei zuzenduta egon dira.

Baina orain proposatzera goazenak ikastolako erabiltzaile eta ikasle guztiengan izango du ondorioa. Modu batera edo bestera, denok erabiltzen ditugu ofimatikako aplikazioak, posta elektronikoa, nabigatzaileak.... Txosten honetan datorren proposamena aurrera ateratzen bada, garbi izan behar dugu bete betean eragiten duela ikastolako langile guztien egunerokotasunean.

Hori dela eta, erabaki bat hartu baino lehen ikastolako etapa guztietan

hausnarketa sakona egitea derrigorrezkoa dela pentsatzen dugu. Lehenik eta behin informazioa zabaldu, honen kontrastea egin, egon daitezkeen kezkek edo zalantzak jaso eta hauei erantzutea izango dira gure lehentasunak.

Hausnarketa bideratzeko asmoz dokumentu bat prestatu dugu (ikus **1. eranskina**). Bertan, proposatzen den migrazioa justifikatzen duten hiru ideia nagusi azaltzen dira:

- Hezkuntza sisteman aldaketa sakonak ematen ari dira. Inguruarekiko isolatua eta endogamikoa izan den hezkuntza sistema batetik, kolaboratiboa eta irekia den sistema batetara pasatzen ari gara. Geldiezina den prozesu horren atzean badira hezkuntzaren misioarekin zuzenean lotutako hainbat kontzeptu etiko. Internazionalki onartu eta zabaldu nahi diren irizpide horiek, gureak egin ditugu modu inkontziente batean. Gure ikastolak dituen balore horiek errekonozitu eta gure Hezkuntz Proiektuan txertatzea proposatzen dugu.
- Aurreko atalean, ikastolako kideok bat egingo bagenu, kontraesaneko egoera baten aurrean topatuko ginatke. Alegia, une honetan softwarearen inguruan egiten dugun erabilera ez dator bat aurrean onartutako konpromisoekin. Horrela, oraingoa aurrekoarekin bat egiteko une egokia dela iruditzen zaigu. Zergatik? Arrazoi hauek dira bigarren zatian zerrendatzen direnak.
- Hirugarren zatian, irakaskuntzan software askea erabiltzeko ikusten ditugun arrazoi ezberdinen zehaztapena egiten da. Askotan arrazoi ekonomikoak direla uste izaten dugu baina badira software askeak aurkezten dituen beste hainbat abantaila irakaskuntza arloan.
- Esan bezala, eranskin honen helburua lankideekin kontrastea egitea litzateke, planteatzen denaren egokitasuna eta bideragarritasuna denon artean balora dezagun. Eztabaida egotea gustatuko litzaziguke, galderak eta kezkek jasotzea nahiko genuke; erabakia garrantzitsuegia da eztabaidarik sortu gabe aurrera egiteko.

Hausnarketa honen barnean, kanpoko adituekin buruturiko saio informatiboak ere aurreikusten dira. Antzeko urratsa eman duten eskoletako arduradunekin jarri gara harremanetan. Gure asmoa, hauetako batek bere esperientziaren berri ikastolan azaltzea izango litzateke. Une honetan, atal hau erabat lotuta ez dagoen arren, errealitate bihurtzeko aukera asko ikusten ditugu.

Azterketa lehen fase hau ikasturte amaierarako amaituta egotea nahiko genuke. Arre edo so egin behar den erabakitzeke ekainaren amaierara jarriko genuke azken epe bezala. Ondoren, eranskinean agertzen diren ildo nagusiekin bat egongo bagenu, hurrengo urteetarako aurrakusten diren urratsak ematen hasiko ginatke.

SOFTWARE ASKEAREN INPLEMENTAZIORAKO 2. FASEA: 2008-2009RAKO PROPOSAMENA

Esan bezala, hasierako txostenak ikastolako irakasleriaren babesaren jasotzen badu, software askearen erabileraren aldeko urratsak ematen hasiko gara datorren ikasturtetik aurrera.

Prozesu horri migrazio deritza eta erakunde bakoitzaren arabera, migrazioak fase edo etapa desberdinetan burutzen dira. Migrazioa urrats bakarrean burutzen dutenetatik, 3-5 urteko epean egiten dutenerarte. Gure kasuan, gure lan-errealitatea aztertuz, migrazioa bi urtetan burutzea erabaki dugu. Noski, esan beharrik ez dago fase hauek goitik behera berraztertu daitezkeela. Dena den, aurrera egitea erabakitzen badugu, ekainerako erabakia hartuta eta datorren urteaari begira hartuko diren konpromisoak zehaztuta egon beharko dira, izan ere, honen menpe egongo da hurrengo urteko ekipoen konfigurazioa bat edo bestea izatea, eta ez dugu ahaztu behar konfigurazio lan hori ekainean burutu beharrekoa izaten dela.

Gure proposamena hauxe izango litzateke

- **2008/2009ko ikasturtea:** ikastolako zerbitzarien konfigurazioa unekoa mantendu, aldaketarik egin gabe. Postuetan erabiliko ditugun aplikazio guztiak, sistema eragilea ezik, askea edo dohainekoa izatera pasatu.
- **2009/2010 ikasturtea:** ikastolako ekipo guztiek erabiliko dituzten aplikazio guztiak askeak izatea. Alegia migrazio fasearekin osorik amaitu.

Migrazioaren lehen fase honen inguruko zehaztapenak **2. eranskinean** irakurri ahal izango dituzue. Datorren urteari buruz ditugun asmoak banan-bana 2. eranskinean azaltzen dira. Dena den, eta modu laburrean, aldaketa honek bi eragin zuzen izango ditu erabiltzaileengan.

- Lehenengoa aplikazio berriak erabiltzearena izango da, alajaina. Printzipioz, aplikazio berri hauek ikastolako langile guztiok erabili behar izango ditugu. Halere, erabaki hori ezin da orokortu langile guztiekin hitz egin arte. Software behar bereziak baloratu beharko genituzke eta lizentzia libreko ordezkorik ba ote dagoen baloratu beharko litzateke.

Dena den, eranskinean une honetan gehien erabiltzen ditugun aplikazioak zerrendatzen dira eta hauen ordezkorik zeintzuk izan daitezkeen proposatzen ditugu. Konturatuko garen bezala, proposatzen ditugun aplikazio hauetako batzuk dagoeneko

normaltasunez erabiltzen ditugu gure eguneroko lanean.

Jarraian, software espezifikoa aztertzen da. Software hau momentu puntualetan erabiliko dugu soilik eta egon daitezkeen ordezeko aukerak ere adierazten dira.

Azkenik, gela barruan erabiltzen dugun software didaktikoa berezia ere aintzat hartzen da.

- Bigarrena, softwarearen aurrean irakasleok adierazi beharko genukeen jarrerari lotuta dago. Hau da, ez da bakarrik software askea erabiltzea baizik eta, orokorrean, softwarearekiko oso barneratuta ditugun jokabide batzuk aldatzea, batez ere, ikasleen aurrean. Ziurrenik askorentzat hauek denak "filosofia" kontuak besterik ez dira izango baina **1. eranskinean** agertzen diren baloreak benetan gureak direla sinesten badugu, ikasleei zabaldu behar dizkiegun hainbat kontzeptu birplanteatu behar ditugu. Hauxe da, modu berean, bultzatu nahi dena ere konpetentzia digitalen inguruan.

Inplementazio lehen fase honetan aplikazio guztiak lizentzia askekoak izatea proposatzen da. Halere, gerta liteke behar ditugun hainbat aplikazio lizentzia askea izatea ezinezkoa izatea. Horrelakoetan, aplikazio hauek ordezkaturiko dituztenak dohainekoak izatea gomendatzen da. Bukatzeko, gerta liteke gure beharrak asetuko dituen aplikazioak lizentzia pribatiboa izatea, alegia, ordaindu beharra izatea. Kasu honetan, lehenik ondo justifikatu beharko litzateke software honen beharra eta, bigarrenik, baloratu beharko litzateke, modu berean, zein den lizentziaren kostu ekonomikoa eta gastu honen bideragarritasuna.

Aurrera egin baino lehen ohar garrantzitsu bat eman nahi genuke: gure asmoa datorren ikasturtean hemendik bi urtera derrigorrez erabili beharko dugun softwarearekin trebatzen joatea izango da. Horregatik, hurrengo urtean ekipoetan instalaturiko ditugun aplikazioak Windowspean nahiz Linuxpean erabili ahal izango diren aplikazioak izango dira. Sistema eragilearen aldaketa tokatzen denerako, urtebete eginda izango dugu software berria erabiltzen, beraz. Horrela, ekipoetan Linux jartzen dugunean sortuko diren egokitzapen arazoak murriztuko lirateke.

Dena den, datorren urtean Windowsekin lanean jarraituko dugunez, langileek aukera izango dute gaur egun erabiltzen ditugun aplikazioekin jarraitzeko. Hori bai, ikastolak, erakunde bezala, software askearen aldeko konpromisoa azaltzen badu,

aplikazio hauek erabiltzaile bakoitzak bere ardurapean erabiliko ditu eta ikastolak ez die inongo euskarri teknikorik eskainiko. Gure ustez, jokabide hauek, epe motzerako baliagarriak edo erosoak izan badaitezke ere, epe luzerako kaltegarriak izan daitezke oso. Izan ere, 2009-2010. urtean sistema eragile berria abian jartzerakoan hauek denak ezin izango ditugu erabili eta, gure iritziz, orduan eragozpenak areagotu egingo dira. Beraz, datorren urtetik poliki-poliki aplikazio berriekin ohitzen joatea gomendatuko genuke.

Bai ikasle baita irakasleen egokitzea erraztearren ikastolak DVD bat prestatuko luke ikastolan erabiliko dugun software guztia bertatik instalatu ahal izateko. DVD honek aplikazioen exekutagarriak eta hauen erabileraren inguruko dokumnetazioa eskainiko du. Horrela, nahi duenak bere etxeko ekipoetan ikastolan erabiliko dituen aplikazio berdinak instalatu eta erabili ahal izango ditu. Egokitze fasea errazteaz gain formatu desberdinetako fitxategiekin sor daitezkeen bateragarritasun arazoak saihestea du helburu bezala neurri honek. Diskoaren erabilpena bultzatzeko asmoz, pentsatzen dugu interesgarria izango litzatekeela honi itxura erakargarri/profesional bat ematea. Horretarako, ikastolako argazkien DVDarekin egiten den modura, diskoaren azala inprimatuta eta kartoizko zorro batean bilduta banatzea proposatzen dugu.

Esan bezala, **2. eranskin**eko proposamena 2008-2009 ikasturterako da. Ikasturte horren amaieran urteko balorazioa egingo da, horretarako bereziki prestatutako inkesta baten bitartez. Bertako emaitzak aztertu ondoren, saio informatibo batzuk diseinatuko genituzke eta, ondoren, 2009-2010 ikasturterako proposamena aurkeztuko da. Dena ondo badoa, orduan emango da migrazioaren azken fasea.

SOFTWARE ASKEAREN INPLEMENTAZIORAKO 3. FASEA: 2009-2010 ERAKO PROPOSAMENA

Azken fase honetan ekipoetako sistema eragileak eta zerbitzarietan dugun software guztia lizentzia libreko aplikazioekin ordezkatzeari izango da.

Aurretik egindako aldaketek gure egunerokotasunean eragina izango badute ere, ezin da alderatu oraingo erabaki honek suposatuko duenarekin. Migrazioaren azken zati honek aldaketa esanguratsuak ekarriko ditu ikastolara eta aldaketa hauek ez baditugu aurretik aztertzen, erabakiaren eragina gure lanean kritikoa izatea heldu

daiteke. Gure lana izango da, beraz, aurretik daukagun urte luze honetan, identifikatuko ditugun arazoengatik inguruan analisi sakona egin eta topatuko ditugun eragozpenei nola aurre egin erabakitzea.

Une honetan, identifikatzen ditugun arazo nagusienak hauek dira:

1. **Langileria eta ikasleriaren prestakuntza:** oinarrizko itxura grafikoa, aplikazioen izen eta kokapena... aldaketa handiak gertatuko dira. Zeretik hasita errore handia izango litzakeela garbi daukagu. Horregatik, formazio saio batzuk erabiltzaile guztiei zuzenduta derrigorrezkoak direla pentsatzen dugu.
2. **Hardwarearen bateragarritasuna sistema eragile berriarekin:** ikastola osoan ditugun ekipoen inbentarioa egitea ere ezinbestekoa da. Ditugun ordenagailuen ezaugarriak baloratu eta instalazioan arazoak topa ditzakegun baloratu beharko genuke. Agian, ekipoekin baino arazo handiagoa izan dezakegu periferikoekin: inpresorak, fotokopiagailua, eskanerrak...
3. **Softwarearen bateragarritasuna sistema eragile berriarekin:** ekipoei instalatzen ditugun ohiko aplikazioetatik gain, asko dira gai espezifikoetan erabiltzen ditugun softwareak: Urtxintza eta Txanela materialak, ingeleseko material berezia, teknologia... Hauek denak zerrendatu eta sistema eragile berriari erabili ahal izango ditugun baloratu beharko genuke.
4. **Ekipoen mantenturako teknikaria:** ukaezina da software askeak izugarritzko bilakaera izan duela azken urteotan. Software askean oinarritutako sistemek inoiz baino egonkortasun gehiago aurkezten dute eta inoiz baino erabilerrazagoak dira. Modu berean, ukaezina da ere, arazoak izango direla eta ikastola barruan izango ditugun baliabideak hauei aurre egiteko nahiko kaxkarrak izango dira. Une honetan kontratupean ditugun teknikariak ere, ingurune informatiko berri honen aurrean ezer gutxi eskaini dezake. Beraz, Linuxen iaioa den teknikari batekin kontaktzea ezinbestekoa ikusten dugu
5. **Zerbitzarien konfigurazio eta mantenturako teknikaria:** ekipoen guztiak Linuxera migratzen badira ez dauka zentzu gehigirik zerbitzariak Windowspean izatea. Hauek ere, distribuzio libre batera pasa beharko ditugu. Horrela, ondo aztertu beharko ditugu une honetan ditugun zerbitzariak eskaintzen dituzten zerbitzuak zeintzuk diren eta nola jarraitu dezakegun zerbitzu hauek eskaintzen lizentzia librea duten aplikazioekin. Atal honetan berriro ere topatuko gara arazoengatik aurrean, izan ere, DUOK etxeak Windowspeko sistemetarako euskarria soilik eskaintzen du. Beraz, hemen ere mantenu teknikari berri baten beharra izango dugu. Ondo definitzen baditugu betebeharrak, 4. eta 5. puntuetako mantenu lanak pertsona berak egin ditzake. Aukeraketan bilatu nahi ditugun profesionalaren ezaugarriak ondo zehazteak, erabakia

arrakastatsua edo ez izatea ekarriko du. Ondo zehaztu beharko ditugu, beraz, bere eginkizunak.

6. **Funtzio bereziak betetzen dituzten aplikazioen**

bateragarritasuna aplikazio askeekin: zorionez ez dira gehiegi ikastolak, bere behar berezietara sortu eta moldatutako aplikazioak. Hauetako gehienak administrazioan erabiltzen dira. Hori dela eta, aplikazio hauek Linuxpean erabiltzea posiblea izango ote den aztertu beharko da. Arreta berezia merezi dute Ikastolen Elkarteak sortutako gestio aplikazio biak, IKASDAT eta IKASWEB eta laister izango dugun IKASLIT ere. Une honetan aplikazio hauek ezin diru Linux ingurune batean erabili. Ikastolen Elkartean software askearen erabileraren aldeko lehen balorazioak ematen hasiak dira eta pentsatzen dugu gai hau datozen hilabeteetan sakonago aztertuko dela. Dena den, IKASWEBen inguruan azterketa sakon bat egin behar dela iruditzen zaigu: zer eta zertarako erabili, non kokatu aplikazioa, mantenua... , aurrera jarraitu aurretik, ondo baloratu behar dugun zerbait dela uste dugu.

Ikusten denez ez dira gutxi hemendik bi urtera topatuko kontutan hartu beharko ditugun atalak. Ikasturte oso luze bat daukagu tartean eman beharreko urratsak, beharrezkoak diren ikerketak, hartu beharreko erabakiak, egin beharreko proba guztiak behar bezala burutzeko. Aurretik denbora nahikoa dugun arren honi guztiari forma ematen joateko, datorren urteari begira, proposatzen ditugun ekintza nagusienak:

- Ikastolako software eta hardware inbentarioa prestatu. Gailu nahiz aplikazio hauen software askearekiko bateragarritasuna baloratu eta egon daitezkeen arazoentzat irtenbideak proposatu.
- Formazio saioak antolatu ikasle nahiz irakasleentzat. Formazio saio praktikoaz gain, antzeko esperientzia bizi izan duten beste ikastetxeetako berri izateko saioak ere antolatu beharko liriateke.
- Mantenu teknikariaren ezaugarriak zehaztu, profil profesionala ondo definitu, bere lan baldintzak (ordutegia eta soldata) ondo zehaztu eta aukeraketa nola burutu erabaki. Atal honetan badago, halere, une honetan erabaki beharko dugun zerbait.
- Mantenu teknikariaren aukeraketa noiz gauzatu erabaki. Agian, hau izan daiteke lehentasun handiena izan dezakeen erabakia. Izan ere, datorren urteari begira, mantenu lanak gaur egun burutzen dituzten etxeek egin badezakete ere, egia da baita ere, etorkizuna prestatzeko eta urreko atal guztietan bere esperientziaz baliatzeko, primeran etorriko litzakeela teknikari berria ikastolan izatea datorren urtetik aurrera. Bere ezagutza primeran etorriko zaigu etorkizuna behar bezala prestatzen joateko.

Datorren ikasturte osoa erabiliko genuke **3. eranskin** bat prestatzeko. Txosten horretan aurrean aipatutako atal guztiekin egindako balorazioa bilduko dugu eta erreferentzia bezala Valentziako Unibertsitateak ekoiztutako migrazio gida erabiliko da.